


Euskal AEko eraikuntzako kostuek bere horretan iraun zuten (%0,0) 2005eko abuztuan

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko abuztua, 2004ko abuztuarekin alderatuta) eraikuntzaren kostuak %4,1 gehitu ziren

2005eko abuztuan, Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea (%0,0) ez zen aldatu aurreko hilaren aldean, eta abuztuko urte arteko tasa %4,1era iritsi zen, EUSTATen datuen arabera.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2005



(*)Gehikuntza abuztuko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2005eko abuztuan, lan-eskuaren kostua ez zen aldatu (%0,0); lehengaien kostuak, berriz, %0,1 igo ziren.

Eraikuntza eta Obra zibila azpisektoreek bilakaera desberdinak izan zituzten. Eraikuntzan (%0,0) indizea ez zen aldatu, baina obra zibilean lehengaien kostuak %0,2 igo ziren, aurreko hilaren aldean. Azpisektore horien urte arteko bilakaerari begiratuz gero, ibilbide hurbilak izan zituztela ikusiko dugu: Eraikuntzako lehengaien kostuak %3,9 igo ziren eta Obra zibilekoak %4,1.

Abuztuan, prezio hazkunderik handienak kontsumitutako honako lehengaiak izan zituzten: *energia elektrikoa* (%6,6), *asfalto-produktuak* (%4,9), *petroliotik eratorritakoak* (%3,9), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%2,6) eta *olioak eta koipeak* (%2,6) lehengaiak. Aitzitik, hileko prezioetan murrizketak izan zituzten, besteak beste, *beira* (%-2,7),

metalezko hoditeria (%-1,3), burdina eta altzairua (%-0,9), karea, igeltsua eta eskaiola (%-0,6) eta zementu artifiziaia (%-0,3) lehengaiek.

Sektoreak kontsumitutako lehengaien artetik, azken hamabi hilabeteetan, hauek izan zituzten inflazio-tasarik handienak: *asfalto-produktuak* (%27,1), *petroliotik eratorritakoak* (%26,7), *harri elaboratua* (%11,8), *leherkariak eta gasak* (%10,7) eta *burdina eta altzairua* (%8,4) lehengaiek. Aitzitik, urteko arteko prezioetan murrizketak izan zituzten *beira* (%-3,4), *bulego-materiala* (%-3,1), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-2,7), *egitura metalikoak eta galdaragintza* (%-2,0), eta *zura eta kortxoak* (%-1,4) lehengaiek.

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA					2005eko ABUZTUA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %			
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean	
KOSTUA GUZTIRA	119,2	0,0	4,1	3,4	
ERAIKINAK	119,0	0,0	4,1	3,3	
OBRA ZIBILA	119,9	0,2	4,3	4,0	
LEHENGAIEN KOSTUA	116,3	0,1	3,9	2,9	
ERAIKINAK	116,2	0,0	3,9	2,7	
OBRA ZIBILA	116,5	0,2	4,1	3,6	
LAN-ESKUAREN KOSTUA	126,1	0,0	4,6	4,6	

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskaral/indice.asp